Bulkada

Jon Benito

poesia Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 2010 Jon Benito
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 2010eko azaroa
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

EZIN AHAZTU NOR NAIZEN

HASTAPENA

Historia nirekin hasten da.

Lehenagokoak dira ibaia eta mendiak.
Aspaldikoak lurra eta bidea.
Antzinako bizitza salatzen dute harresi kondarrek.
Nork erabaki zuen hau zela tokia?
Nork jaso zuen aurreneko babeslekua?
Ze izar dirdirak zehaztu zituen koordenadak?

Ez du kalerik lehendabiziko etorkinak.
Nondik heldu zen? Ez baitzen bertakoa.
Bera hemen kokatu artean inor ez zen hemengoa.
Zer ikusi zuen? Lur mina, lur zatitua, lur ezina,
ozeano lehorra, negu epela, kare gazia, zuloan
harea.
Irudikatuko ote zituen platanerak,
frankismo amaieran eraikiko ziren etxeak,
parkea eta nire gurasoen bizilekua?

Joan ziren nomadak, galdu ziren erromatarrak,
garai ilunetan eliza jaso zuenetako inor ez dago.

Bizidunen ongarri dira hilak,
adarretara egiten dute sustraiek,
jendearekin lotzen ditut galderak, nire kaleetan.
Nork eman zien harriei jendetasuna?
Nork egin zuen trenbidearekin muga?
Nork izendatu azken portua?

Atzoak egungoaren ur azalera tenkatzen nau
erantzunik gabeko amuekin.
Ez naiz lehena, nire aurretikoa da dena,
baina historia hau nirekin hasten da.

1981

Maiatzak hogeita lau zituen
ekarri ninduten egunean.
Euria nirea zen.

Igandea.
Tomas Linazaren aitaren
soin jipoitua salatu zuen *Egin*ek.

Reagan eta Mitterrand
hautatu zituzten urtea zen.
Egunsenti armatu batek
egin zigun diosala.

Aitak esaten du
besoetan hartu ninduenean
kilker bat nuela arnasan.

Aurrerantzean
bere poza ez zen Athleticen gola,
nire negarra ez zen amaren pena,
amaren nekea zen nire indarra.

Mundua nirekin zenean
guraso berriek
etorkizuna ukitu zuten.

HAUR ERIA

nintzen haurrak
txaplatarekin estalia zuen begia
eta ametsetan besterik ez zen pirata

nintzen haurrak
hotz zeuzkan oinak
eta irakurtzen bakarrik zeharkatu zuen estepa

nintzen haurrak
korapiloa zuen bihotzean
eta ez zen maitemindu

ARGAZKIA

Osaba-izeben ezkontzakoa da argazkia.

Zenbat urte ditudan?
Ez dakit ondo,
bederatzi edo hamar.

Hor nago,
beheko ilaran:
ezkerrean bigarrena,
belauniko.

Amak jantziko ninduen horrela:
praka labur berdeak,
jertse marradun horia.
Lau urte nituenetik-edo
daramatzat betaurrekoak.

Aldameneko horiek lehengusuak dira.
Haur-mami den hau
medikua izango da laster:
«Zertarako da familia, ez bada

behar duzunean arta zaitzaten?».

Zaharrena naiz lehengusuetan.
Ez zait sekula gustatu.
Gazte izan beste asmorik ez zuen
haur bat nintzen, baina ez haien eredu.

Susmatiaren begiekin
zelatatzen dut kamera.
Ordutik ote datorkit
inon eroso ez egoteko
erraztasun hau?

Nire atzean, zutik, gurasoak.
Haien ezker-eskuin osaba-izebak,
ezagutzen ez ditudan senideak,
eta argazkiaren ertz batean ezkonberriak.

Ezkutuko ze indarrek batzen du familia?

Gerora jakin nuen
zeinen zailak ziren
amour eta *toujours* errimatzen.

Ia hogei urte joan dira.
Elkarrekin darraite
orduko ezkonberriek.
Bi alaba izan zituzten.

Urrundik etorri ziren adarretako ahaideak
ez ditut ezagutzen.
Izebei entzun izan dizkiet euren kontuak,
baina niri bost.

Aitaren eskuinean dagoen hori
biziminak hil zuen osaba da.

Jende arrunta dira denak:
lana, familia, kezkak
eta dezepzio batzuk.

Batzuetan arrotz sentitzen ditut,
euren iloba edo seme izan arren.

Gaur ezkerzalea eta argala naiz,
ateoa eta heterosexuala.
Auskalo noiz arte.

Nola utzi ordea,
baina batez ere zergatik,
euretakoa izateari?
Nire antzekoegi begitantzen zaizkit
eta beldur zirrarak hartzen nau.

Odolezko sustraiez gainera,
hiletetara joaten naizenetan
ezezagunekin sexua izatearekin fantaseatzeak
lotzen al nau eurekin?
Nik adina zalantza dauzkate?
Nitaz aparte beste inork izan ote du
dena bazterrera utzi eta
urrutira joateko bulkada?

Ez dago jakiterik.
Nork bere kontuak bizi ditu.

Argazkian
barne ekaitzik gabeko
jende zoriontsua dirudi familiak.

AMA

1

Estutzen nauenean
maite dudalako
mindu egiten naiz.

Babesten nauenean
maite nauelako
haur egiten nau.

Bere aurka egin nuen
nire lekua aurkitzeko.
Bere ondoan dago nire lekua.

2

Beragandik erditu naiz.
Eta ez naiz bere erdia:
senarra, semeak, lana.

Naizena da bere semea
eta batzuetan nire aurka zaindu nau:
goserik ez nuenean katilu bete zopa,

akatsetatik aukera egiteko beharra.
Nork entzuten nau ito eta neure buruarekin
borrokan hasten naizenean?
Norekin ikasi nuen oinez ibiltzen,
nork irakatsi zidan munduz ibiltzen?
Berak lagundu zidan mundua zibiltzen.

Nire erdia ez balitz
neure buruaren gabe nintzateke.

AITA

Handia izan gabe
duena ez da txikia,
        txikia izanda
        zerbait du handia.

Nirea balitz harro nintzateke
eta nirea da,
        baina orduan
        zerk egiten du karranka?

Haserretzen denean haserretzen naiz.
Ezerekin itotzeko joera eta
        gauza txikiei garrantzi gehiegizkoa
        ematea hartu dizkiot.

Bere odoletik nator.
Etxeko labanarekin
        egin nuen lehenez bizarra:
        aitarena da nire lehen zauria?

PUEBLO

1

Itzartu gabe askatu du ohetik amak anaia
eta pijamaren gainetik jantzi dio jertsea.
Aitak maletak jaitsi ditu Seat 124ra.

Neure kabuz, gurasoek esan gabe
prestatu naiz, laster gaztea izango naizelako.

Gau da esnatzeko, baina izango dugula
lotarako tartea, eta ez kezkatzeko.

Atea itxi aurretik hartu dut Stevensonen
liburua: orain nik hautatzen dut zer irakurri.

Eguzkia indartu baino lehen komeni zaigu
Tordesillaserainokoa egitea, hortik
beherakoa iritsi beharrez egingo baitugu.

Autobidea ikusi dut ilunetan, beste kotxe
batzuen faroak herria atzean uzten
eta aitaren aurpegia erretrobisorean.

Betazalak astundu eta amona agertu zait
sustraien manatuak gogoratzen.

Egunaren argiak ireki dizkit begiak:
loak erreta dago anaia.

Ez ditut ezagutzen
seinaleetan irakurri ditudan herriak.
Ni ez naizen jendea bizi da paisaia arrotzetan.

Bidailagunaren eserlekutik burua biratuta,
laster garela etxean esan du amak.
Baina nola da hori posible?
Denok badakigu urrun utzi dugula etxea.

2

Jendea ez da zuhaitza
bere lurrari betiko lotzeko.

Anaiak bere neurriaren marka
egin zuen ukuiluan.
Oin bat hazi zen azken alditik.
Zortzi urte zituen.

Ikusi arte ez nekien,
ukitu arte ez nuen sentitu:
larrea horia da
eta belarra aiztoa.

Tioren Citroen Dyanean joan ginen
behiei pentsua ematera.
Tio esaten genion,
nahiz eta ez izan aitaren anaia.

Han ere asunak heldu egiten zuen,
han ere mina jan egiten zen.
Baina han etxea ez zen gure etxea.
Gu ez baikara hangoak.

Aitaren aldekoak bai, handik etorri ziren.
Eta barruko ahots batek galdetzen dit:
«Ikusten ote duzu zeure burua han bizitzen?».
Iturria, herria erdibitzen duen errepidea,
udaletxe plaza, Tormesaren hotza.

Asko aldatuko zen dena:
ukuilua bota egin zuten garajea egiteko,

burdin hesia jarri itzalpea babesteko.
Horretan nekatu denak besterik ez daki
zenbatetan aldatu duten teilatua.

Amonak hango hura zuen bere etxea,
nahiz eta hemen bizi den
memoria dudanetik.

Ahots batek galdetzen dit:
«Eta han jaio izan bazina?».

Tiok zeukan apurra bertan utzi eta
hona etorri zen azkena ematera.
Amonak, inoiz esan ez zuen arren,
ziur han lurpera zezaten nahi zuela.

Batzuk
hemen bizi eta
beti dira hango.

LUR AZPIKOAK

Atzora arte mundutarra zen gaur munduarentzat
dena
eta orain lur ematen diegu lurra behar dugunean.
Hobiratzaileen mekanikari begira,

galtzen ari garenaren lekuko gara.
Laster joandakoen zerrenda izango da
familia: izen eta datak harrian zizelkatuak.

Zuloa berdintzen ari dira
heriotza ez dadin bizidunekin nahastu.
Zerua beltz dago. Euria egingo du.

Mahasti artetik autoaren motor hotsa heldu da,
amak gurutzea egin du, eta sustraien bila
luberan hondoratzen ari naizela nabari dut.

Ezagutzen ez dugun jendearen hilobiz inguratuta
gaude.
Nor zapaltzen ari ote naiz? Bizien lurrinaz oharturik
gotortuta zelatatzen gaituzte defuntuek.

Berandu da. Etxera itzultzean
noizbait hilen lekua ordezkatuko duten umeekin
jolastuko gara aulki dantzan.

AITA HIZKUNTZA

Nire hizkuntzak
ez du aita ulertzen,
baina ulertzen dut aita.

Nola da nire,
nola gure,
aitarekin baliatu ezin dudana?

Nire hizkuntzak,
norekin,
ez du zubi egiten.

Nire hizkuntzak
jende gutxirekin ulertarazten nau
gehiagorekin inkomunikatzeko.

Nire hizkuntzak
gutunak atzeratzen ditu,
kartzelako patiokoa da.

Nola lotzen gara
ama hizkuntza ez bada
aitaren hizkuntza?

GINENEAN

Gu Imanol, Asier eta Nerea ginenean
gure muga zen gure indarra
eta aitaren ogibide bera izan nahi genuen.

Auzoko ume izatea,
erreketan frantses jana harrikatzea,
fabriketako hondakinekin etxola egitea.

Gu Ekaitz, Migel Anjel eta Andoni ginenean
hodeiak patriketan sartzen saiatzea
eta «besteak ala gu!» harrotzea.

Emeek galtza azpian zutena asmatzea,
gauean begiak erre arte irakurtzea,
inoiz gehiago azkenak ez izatera jolastea.

Gu Haritz, Gorka eta Eneritz ginenean
maite genuena galkorra zela
eta helburu genuena amets.

Nonbaitekoak ginela sinestea,
norbaitekoak ginela ulertzea,
zergatik ote zen pentsatzea.

Gu Gari, Jurgi eta Iñaki ginenean
nahia ez dela ahala
eta bideak behar duela oztopo.

Bilatu gabe ez dela aurkitzen,
erori gabe ez dela zutitzen,
sentitu gabe ez dela bizitzen.

Gu Mikel, Aitziber eta Gartzen ginenean
mundua kartzela dela
eta kartzela mundu.

Preso ez dena ez dela libre,
baina preso dena ere ez dela aske,
biharko egunkarietan zuen izenak irakurtzea.

Gu Aina, Xabier eta Ibon ginenean
galtzea eta galtzea
porrotaren poza eta zorionaren negarra.

Eta ondo ulertzen ez diren hitzak
azkeneraino zaindu beharraren garrantzia:
maitasuna, errespetua, mina.

AZKENAK IZATEA

LUR-EBAKIA

Nire herriaren iragana bidegurutzeetan markatua dago,
egutegian egun oro da zerbaiten efemeride,
aspaldikoaren memoria dauka.

Marea gora aldatu zaizkio mugak,
lur okupatu eta eremu libretan zatitu da,
harresi baino zubi gehiago ditu:
errenditu arren ez da galdu.

Baina nire herria,
paisaiaren koloreko bandera,
emakume eta gizonez egina dago,
gaurko egunera arte heldu den abentura da.

Lurrez hustu eta jendez betetako zuloa
ez da lur-ebakia, hazi egiten da galerekin.

BIZILAGUNAK

Izen bera dugu: Juan.

Mutil gaztea zinen zu, ni gaur naizena.
Erdiz kanpokoa... ni ere bai.

Zalamea de la Serenatik etorri zinen zu
eta hartu zintuen herrian jaio nintzen ni.

Ezberdinarentzat berdintasuna nahi zenuen
eta deserriaz aberri egin.

Nola baino garrantzitsuagoa da zergatik.
Zergatik baino deserosoagoa da zer.

Zure gurasoen etxea zena nireenen ondoan dago.
Etxepeko sahatsa palmondoa da orain.

Urduri mugitzen naiz
zure izenik ez duten zure kaleetan.

Iraintzeko gogoratua,
lurpean askatasun haize,

destinoak ulertzen ez ditugun jokoak
egiten dizkigu batzuetan:

ez al zenekien Paredes
hormak zirela?

DURDUZATU NINDUTEN LAU EGUN

1

Hamahiru urte nituen
bi gorpu-hezurren
aurkikuntzaren berri eman zutenean.

Foya de Coves, Busot, Alacant.
1995eko martxoa. Kare bizia.
Informe toxikologikoaren arabera
Lasa eta Zabala izan zitezkeen.

Ez nituen ezagutzen eta hala ere
ezin askatuzko zerk lotzen ninduen eurekin?

2

Beste herri batean beste garai batean jaio izan banintz
zer zentzu ote luke Kortaturen kantuan abesten genuen
estoy metido en una causa perdida hark?

1995eko apirila. Lehergailu bat
eskuetan zerabilela hil zen
Eduardo Lopez polizia
Guardia Zibilaren Endarlatsako kuartel zaharrean.

Egunkariko argazkian
zulo bat ageri zen horman.

3

Maiatzean egin nituen hamalau
urrutiko intxaurrak ez ziren lau.

Madrilgo Carmen kalea. 1995eko ekaina.
60 kilo amosal eta samin hotsa.
Ehun metro harago, Callao plazan,
Jesus Rebollo udaltzaina hil zen
eztandak jaurtitako burdina puskak jota.

Ezagutzen nituen askatasunaren esanahi guztiak?
Non zegoen beste
aldean jartzen ninduen marra?

4

Izan naiteke libre bestearen aurka?
Zer dio amorruaz justiziak?

Udaberriaren azkeneko izkina hautsia.
Hondarribiko aireportua.
Joxean Lasa eta Joxi Zabalaren
senideen kontra oldartu zen Ertzaintza.

Manifestazioa deitu zuten biharamunerako.
Zerbait gertatzen zen hor kanpoan
eta erantzunen bila ari zitzaizkidan galderak.

Denbora luzez iraungo zidan
sukar baten lehen beroak ziren.

AURKA

Lurra ez bada jendearena
nola naiz nonbaiteko?

Eskaintzen zaidana baztertzen dudalako
nahi dut ukatua.

Ez dut nik asmatu
errealista izateko modu bakarra
ezinezkoa eskatzea dela.

Ez ote naiz
iraganera begiratuz garaikide?

Minuskulaz idazten dut oihu,
zalantzarekin erantzuten dizuet.
Onartzen nauzuenean mespretxatuko zaituztet.

Ez dut zuen aurka egiten
nire alde.
Nire aurka egiten dut
zuen aurka.

LIBRE IZATEA
(«Y» BELAUNALDIA)

Azken albisteekin begiratzen zaitut, ama.
«Nola esango dizut ni izan naitekeela hurrengoa?».
Zopa jaten dut eta saiatzen naiz
etxea memorian giltzapetzen: anaia bere kontuekin,
aita futboleko kronikak irakurtzen.

«Zer esango du egunkariak bihar nitaz?».
Ez naiz ikasle txarra, maite dut nire jendea.
Zuekin egindako gauzez gogoratzen naiz:
anaiarengatik egiten genituen auto bidaiez
eta umetan elkarrekin mendira joaten ginenekoaz.

«Nitaz lotsatuko zarete atean deitzen dutenean?».
Oheburuko irratia piztu eta galtzeko gauzak
zenbatuz
zelatatzen ditut gaueko argiak.

DERRIGORREZ POLITIKOA

Garazik irratia pizten du esnatzerakoan.
Martinek bere itzalari erreparatzen dio
bakarrik ez doala ohartzeko.

Ze keinu inozenteak!

Mikelek pertsianen zirrikituetatik begiratzen du,
Gorkak izen eta aurpegi ezagunen bila
irakurtzen du egunkaria.

Ohituraz egiten dute!

Mariani atea zarratzean
urrutira joaten zaio gogoa, eta ez daki
egun bat gehiago edo egun bat gutxiago den.

Denok egiten dugu horrela!

Nire jendeaz idatzi nahi nuke,
baina zeinen zaila den
poema ez-politiko bat egitea gure herrian.

ITZULI GABE

joan zinetenetik
udan ere negu da

joan zinetenetik
beti gara gutxiegi
eta beti zarete gehiegi

joan zinetenetik
ez da zuen itzulera
desiratu ez dugun egunik

NO TIME FOR LOVE

Dardaraz galgatu dut España amaitzen den
lerroan.
Jendarmeak bidean inbutua egiten ari dira
eta abiadura moteltzera behartzen dute.
Bidaiariak eta matrikulak zelatatzen dituzte
susmagarriak bazterreratu eta paperak eskatuz.
Galdetzen badidate, Baionara noa lanera:
«Elkarrizketak egiten dizkiet idazleei».
Aurreko autoaren atzeko leihotik
umeak keinu egin dit eskua kristalaren kontra:
Agur, agur, ez naiz ezeren beldur.
Baina ni ez naiz izu ez izateko moduan bizi.
Etorkizun da ilara, zer gertatuko.
Nondik nora doa susmagarriak
inozenteetatik bereizten dituen muga-lerroa?
Aterkia, liburuak eta jatekoa, bidaide arrarorik ez.
Jarraitzeko agindu didate eta
libre uste naiz miatzeko geratu dituztenei begira.
Gurpilek errepidea jaten dute, hegoaldera utziz
Larrun lainoak estalia. Garaiz behar dut hitzordura.
Aireporturako irteeran autobidetik aldendu

eta izena ahazten den tokietatik
ezezagunaren izulekuetan barrena
ni ere arrotz naiz nire herrian:
hodei beltz bat da eguraldiaren mapa,
denik ere ez dakidan jendez eta kalez egina dago.
Ez geratzeko egiten dut aurrera mendiko zidorretan,
atzetik jarraitzen nauten jakiteko ispilutik begiratuz.
Memorian geratzen ez den arrastoa behar nuke
izan:
ez lokatzetan oinatzik ez edalontzian hatz markarik,
ikusezin eta usaingabe, belarriak erne eta ahoa
mutu.
Elkartasuna ideologia eginda hilen lurra urratzen
dut,
desagertuen galdez nabil aterpetxeetan.
Ate ezezagunean jo eta argi bat piztu da.
Ahazten ez duguna ezin da galdu.

—Esadazu mundua sentitzeko
modu baten azkenak garela.

BI AULKI ETA MAHAI BATI BEGIRA

1

Lau hanka eta bizkarraldea.
Ezer gehiago ez.
Pertsonen zama,
bere iritzi eta zalantzekin,
sostengatzeko nahikoa.

2

Plastikozkoa, egurrezkoa, zumezkoa.
Diseinuzkoa, merkea, propagandakoa.
Berdin dio, ezta?

3

Neurri egokiak ditu
proposamenak aurkezteko.
Orekari eutsi eta gutxieneko distantziak
zaintzea ezinbestekoa du:
ez gertuegi berriz elkar jotzeko,
ez urrunegi gero ezin besarkatzeko.

4

Aulkiak ez daki taktikaz,
aulkiak ez du hitz egiten,
aulkiak eutsi egin behar du.

Mahaiak batzeaz daki,
mahaiak entzutea dakar,
mahaiak akordioa nahi du.

PAPEREKO LAGUNAK

IRAKURTZEKO IZAN

Paperekoak ziren nire lagunak
eta lurra eta itsasoa.
Loa kentzen zidan munduak
eskuetan eusten nuelako.

Ilunpeen bihotzean
Zekale artean harrapaka
Egun bat nire bizitzan
Galdu arte.

Estudiantea behar eta detektibea nintzen:
naufragio bat ohean
kasua argitu arte ametsak jan
eta errusiarrekin tratua hitzartu.

Elurra eraman Habanara
izan ez naizen gerra guztietan galdu
nahiago bainuen begietarako izan
hezur haragizko baino.

Cabo Verden Amerikan Bilbon Parisen

heldua herrigabea emakumea
edanzalea lapurra senar aldrebesa...
ez naizen jende asko izan naiz
ni izateko.

Denak ni baino ausartago libreago
gaiztoago denak.
Ni ez.
Ez naiz Poeta New Yorken ez Lizardi Parisen
erantzun bila sosegu hila galderak mila.
Ez nintzen izan nahi nuena.

Nire gorputza bizipen bila ari zen
beti bakarka baina inoiz ez
hitzen ahalean zirraran zailean
nekearen gurasoen eskolaren lagunen aurka.

Mapa bat zen liburu bakoitza
nobela ezberdin bat gure kalea egunero.

Liburuetan bizi nintzen
eta mundu bat nuen irakurtzeko.

VLADIMIR (MAIAKOVSKIREN POEMA BATEAN)

1

Lagun tobaritxok!
Barka poxelatzea.

Atzera egiteko asmorik gabe
aspaldiko zerbait
aipatu nahi dizuet:
nik ez dut ahaztu
hitza ez dela letra bakarrik.

Mundua poemetara ekartzeko
ardura larriak
nahi zituen loreak eta behar zituen harriak
egiaren gezurrak eta gezurraren egiak
orain idazteaz mila kezka izaten jarraitzen dut
eta gutxi dira berriak.

Gure hizkeran
esaldia labana zen
zorrotz eta zuzen
hitzak behar zuen garden
eta akuiluak ezten...
baina idazten
iruzurtia besterik ez da aberasten.
(eta gure sakelak txorien habia ziren...)

2

Nork ez zuen eltze bete sutan asmoz?
Hitz hilezkorren aurka
biziaren trazuz
zokoak harrotuz bazterrak sutuz
(orrietakoak bederen)
barrenak hustuz
gertatzen zela uste genuena jaso nahi genuen.

Zuk harako liburua irakurri
eta poema bahituran ematen zenuen presaka
itzulita.
Dena Vladimirrentzako!
Zenbat hitzen banketxe ostu ditut nik?

Haiek
ehunka bihotzi
jaten eman behar zieten.

Hitz haiek gaueko ogia ziren
hitz haiek portura zetorren ontzia ziren
hitz haiek iraganez kargaturiko arma ziren
hitz haiek ez zuten hitzetan loratu behar.

3
Posible da!

Mundurako eta guretzat
produkzio materialerako bitartekoen kontrola
eskatzen genuen.
(Guk idatzi guk multikopian pasa guk
banatu).

Metaforaren gainbalioa alboratuz
irakurriaren plazera trukean emanez
guk beste inor gutxik idatzi du ukabilez.

4

Orria kuartillan erditua
mezuaren lirika eta hitzen hezurra
politikoa bada ez da gezurra
literaturaren ahots zauritua.

5

Zuengatik da ederra aldarria.

AINGURAK DENBORETAN

Etorkizuneko irakurleok, hara hor
izan nintzen idazlearen lehen liburua,
ausardiak eta ilusioak egin zuena
(ez nuen lotsa apur bat ere izan?).

Zuek handinahia ikusiko duzue,
mundua kontatu nahi nuen nik.

Zer zen aingurak erraietan sentitzea
ez bazen hitzen zarata hura
lurrera lotu eta zerura begirarazten ninduena?

Liburutegian Benedettiren
bildumen ondoan ikusten dut orain
eta burua makurtzen dut damuz.

Poesia ez nuen nik hil,
hark zauritu ninduen larriki.

EKAITZA ETA BULKADA

Liburu bat argitaratzera noa orain,
nintzen idazlea hil eta denbora batera.

Hiru urte dira hasi nintzela
bizipenei berriz letrak jartzen.

Hitzak berez adieraz zezala
metaforarik behar izan gabe.

Bob Dylanen *Blood on the tracks* egin nahi nuen.
Literatura bizitzara ekarri... edo alderantziz zen?

Ekaitza eta bulkada titulatzea bururatu zitzaidan
baina erromantikoa zen sobera.

Dramarik eta lirismorik gabe idazten saiatu naiz
ariketa erraza ez izan arren.

Letrak letraren atzean jarrita
hitzek pisua hartzen dute,

kontuz ibili behar da paperean geratzen direnekin,
gotortu egiten baitira ezin aldatzeraino.

Egin ahal nuen beste modu batera,
fikzio jantziz, nire gauzak gehiago mozorrotuz

edo errealitatearekin lotura oro kasuala dela
esanez...
Ez uste, zalantza asko izan ditut nola egin.

Oraindik ere bai. Letrak batzen
baino denbora gehiago eman dut ezabatzen.

Ez nuen dena hemen jarri nahi.
Ezkutatu dudana ez dakit literatura den,

baina nirea da
eta zuk ez duzu hori irakurriko.

Zenbat desira eta bizipen, damu eta kezka...
bai eta ez, orain eta beti eta lehen.

Nahastu ote nezake dena neurri berean
nintzena eta nahizena?

Gertatu zena ala sentitu nuena da garrantzitsuago?
Amestutakoa ala sufritutakoa?

Biluzik geratzearen beldurrak jan izan nau.
Atzera egin dut. Idazketa utzi. Berriz hartu.

Nire burua gehiegi estutu dut
lan on bat egin nahi nuelako.

Zer da hori ordea? Hunkigarria izatea
ala sarigarria? Niretzat ala besterentzat?

Liburu bat da. Hori bakarrik.
Nik ez beste inork idatzi ezin duena.

LAU POST-IT
21. MENDEAN POEMA LIBURU BAT IDAZTEKO

1

Paul Eluard 1952an hil zen,
Alejandra Pizarnik 1972an,
W.H. Auden 1973an,
Gabriel Aresti 1975ean,
Vladimir Visotski 1980an.
Denak ni jaio baino lehenago.

2

Harremanez, lagunez,
ideologiaren galeraz, diruaz,
mugikorreko elkarrizketez,
etorkizunarekiko dudan beldurraz,
auzoaz eta nire herriaz,
maiteminaz eta sexuaz,
gertatzea nahi nuenaz eta gertatu zenaz,
ikusten dudanaz, sentitzen dudanaz...

3

Fikzio susmagarriki
sinesgarri bat egin,
paper gainean jarri
eta zatikatu, artifizioz,
baina literaturaren makulurik gabe,
poemak ez diren poemetan.

4

Nola ez izan aspaldiko?!
Nola ez izan besteren kopia?!
Nola ez izan kitsch edo collage?!
Nola ez izan monotono eta monologo?!
Nola ez izan nahaspila ulergaitz?!
Nola ez izan artifizial, pertsonal,
dramatiko, ironiko, faltsu,
kontraesankor, fribolo?!

BARRENEKO BOZA

Isiltzen dudana
esan gabekoa
gorde nahi nukeena.

Kontrolagaitza da
bizi gose
nirea izan gabe nirea.

Erantzun batzuen galdera
naizenetik nintzenera:
nola izango naiz lehengo berbera?

Isiltzen dudana
esan gabekoa
itxi nahi nukeena.

Bizigarria da
min iturri
nirea izanik gurea.

Plazer, amorru eta pena
aspaldikoa eta azkena
ni ez naiz nintzena.

* * *

(Nintzenari buruzkoak
hasi behar nuke kontatzen
aurrerantzean hirugarren pertsonan)

GEZUR ETA HARAGI

UDAKO GAU BATEZ

Unea izan zen ala lekua?
Izarretan idatzita zegoen
ala desira baino ez zen?
Bere eskua ala zure musua?

EURITAN

Hirugarren aldia da zure bila irteten dena.
Orain arte ikusi izan zaituen lekuetan
topatu nahi zaitu: betiko tabernetan,
terrazetan, bizikletan paseoan.

Jai da udako lehen euri egun honetan.
Bakardadearentzat aterperik ez eta
guardasolen artean xerka dihardu.
Arkupetan besarkatu nahiko zintuzke.

Sosegu gabetu egin da pentsatzean
bera ez dabilen edozein lekutan egon zaitezkeela.

RENDEZ-VOUS

Zure enkontrura doa bidegurutzera.

Ez daki polizoi bat ote den
beste baten bizitzan sartzen,
berriz akats berak errepikatzen.

Erraz esango lizuke gaurko kontua dela,
bihar ez dela gogoratuko,
larruaren sukarrak ekarri duela honaino.

Baina itzultzeko gogoak hartzen du gero.

Berdin zaio bihotza epeltzean
zer egingo duen zapaldutako elurrarekin.
Ez dio bere buruari itaunik zor.

Badaki zein den
zure barrura sartzeko kontrazeinua.

Bidegurutzez erra liteke,
bereak beste batzuenekin partekatu
suaren egarri denean.

Hemen da... gezur eta haragi.

Zure besoetan bildu duzunean
plazerez ala ikaraz egin du oihu?

WILDER SHORES OF LOVE

Kontra datorren haizearen bandera dira zuen aurpegiak.
Eskuturra jiratzen du motorraren abiadura bizkortuz.
Hegan egitetik hurbilen egongo zaren eguna izango da.

Gerritik estutzen duzu bihurguneetan errazago etzateko.
Zure titiak bizkarrean igartzen ditu
eta zezen harro bat sentitzen da.

Bidegurutzean gora hartu duzue,
eguzkiari jarraika, mendebalderantz,
han zerua, egunaren azkenetan, distiratsu baita.

Bere sorbaldan okotza bermatu eta,
bide-babesetik landa, mendi malda ikusten duzu;
beherago itsasoraino heltzen den mundua.

Inor ez dabil.
—Pentsua garraiatzeko kamioiek eta
baserritarrek besterik ez dute erabiltzen bide hau.

Non zaudeten galdetuko balizute
ez zenuke jakingo mapan jartzen:
etxetik urrun, norbaitengandik gertu.

Atzean zuhaitzak eta errepidea
eta mulko pilo bat besterik ez,
erreferente eta loturarik gabe.

Eskua luzatu duzu haizetara
ia hostoak ukitzeraino.
Barruek arnasa hartu dute.
—Ondo zoaz?
Laster ilunak bildua,
senaren manatuetara utzia.

Errepideak asfaltoa galdu du,
karezko segida ere amaitu da,
higatuaren markak jarraitzen dituzue

kargaleku zahar batera ailegatzeko.
Harrizko soilgunea du atarian.
Motorra galgatuta, ingurua mutu da.

—Alice Munroren ipuin batean
antzeko zerbait gertatzen da...
baina Ameriketako Estatu Batuetan.

Zubi bat zeharkatzen dute gauez pick-upean
eta etxaldearen kanpoaldeko urmael ilun batean
izarren islari begira geratzen dira.

Non bikoiztuta ikusi behar dituzue zuek
ez bada elkarren begietan?
—Ipuina nola amaitzen den jakin nahi duzu?

Eskua eman dizu eta, motorretik aldenduta,
soilgunetik aurrera eraman zaitu oinez.
Esku bat da, esku bat besterik ez. Momentuz.

Mendian zulo eginda, sasiekin estalia,
gaurik luzeena baino ilunago,
harrobi zaharraren galeria.

—Zer dago behean? —Ezer ez!: ez lur ez ur...
Hondakinetatik hartutako harri bat bota eta
sakonak oihartzun egin gabe erori erori erori da.

Besoa pasa dizu sorbaldatik,
bizkarreko desertuan behera eskua.
Begiak itxi dituzu.

—Ziur zaude ez dagoela ezer?
Bere barruetan zure hitzek ere ez dute kolpe egiten.
Baina jausi da.

Berriz giltzari ematean
eztul egin du motorrak,
etorriko denaren mehatxu.

Oinak airean, barrua bero,
eskuekin bihotza laztantzeko asmoz
inguratu duzu atzealdetik.

Bidegurutzean ez du zalantza egin
eta barruan duzun iparrorratzak
galdu egingo zaretela esaten dizu.

Behera jarraitu duzue ausaz.
—Esadazu nik sentitu dudana
sentitu duzula zuk ere.

Motorrari gehiago eskatzen dionean eztul egiten du.
Gau da, ilun da, bihar da.
Urrun zaudete, baina zerbaitetik gertu.

Motorra zamatuta joan beharko du gero,
baina sekulako plazera da
behera bultzatzen zaituzten erorkizun hau, ezta?

AMODIOA BILBON

Esperantza (kalea) mehar, ilun eta laburra da
eta zure urratsak jarraitzen ditu
euripean Someratik Uribarrira.

Beti-betiko Converseak, panazko jacketa.
Marguerite Durasen nobela batekin etorri da
trenean
Toletxegain, Amaña, Traña, Euba...

(Oroitzen al ditu liburuko hitzak barruan bulkaka?
«Oso goiz izan zen berandu ene bizian»
errepika eta errepika, ez ahazteko.)

Itxi dituzte azken tabernak, handi dator Nerbioi.
Dendetako erakusleihoen islan ikusi duzu bere
figura:
mehar eta zurbil samarra da, 25 urte ditu.

Zeuk ere adin hori izango duzu laster,
baina oraindik gurinezkoak dira zure bularrak

eta beso artean kabitzen dena besterik ez dezakezu eman.

Putzuan sartu du oina. Zeharka begiratu diozu, isilik, Kristo (kaleko) maldan gora, zerura kondenatuta.
Ile bustiak kopetan itsatsita, lainotan dauka gogoa.

Atseden edo neke izango da ohea?
Plazer edo buruhauste?
Buruak ukatzen duen zerbait nahi du bere barruak.

BESTEREN LARRUAN

1

Gizon eta emakumea
erantzi duzuen
ar eta emea zarete.

Azalera berri bat
arakatzen dute atzamarrek
bestearen haragi gose.

Ez daki zuk zer nahi duzun
baina zure hankartean
amaren sabelera itzultzen saiatuko da
erritmo kolpekarian.

2

Haragizko lorea
laztantzen duzunean hazten da
zure zauritik barrura egiten duen sugea.

3

Amodioa deitzen duzuen
ezkutuko borroka horretan
bi haragiren jotzea ez da zuen min
ukitzen ez diren gainerakoena baizik.

4

Bakarra zinela esan zizun gauean,
baina bat gehiago zara etzan zarenean.

Ohearen alde hori beste batek hartu zuen lehen
eta haren mamuak zurekin egiten du lo hemen.

Zerk huts egin zuen orduan?
Orain zu zaude bestearen lekuan.

Izan zen gezurra? Izan zen beldurra?
Noiz galdu zuen besteak bereganako fede apurra?

AUZIAN

Zer egin behar zuen?
Begirada bat
besterik ez zen.

Zer egin zezakeen?
Gaueko azken trenean
gurutzatu ziren.

Zer beste aukera zuen?
Biak bakarka, biak lotsaz,
biak libre ziren.

Zer egin nahi zuen?
Galderak berak
mila erantzun zituen.

Zer aukera zituen?
Gerta zitekeen
eta gertatu zen.

SEINALEA

Atetik ikusi zuen korridorea:
zapatilak eta plater bat otordu baten arrastoekin.
Usaina baino lehen heldu zitzaion nazka.
Zokaloa ertzetan hautsia, paperak alfonbra gainean.
Lehen aldiz Londonera joan zirenean erosi zuen
Hockneyren erreprodukzioa lurrean, hormaren
kontra.

Noiz etorri zen azken aldiz bisitan?
Beste aterpe baten oroitzapena zeukan.
Orduan Leirerekin bizi zen,
orduan gauzak ondo zihoazen,
elkarrekin egiteko asmoak zituzten.
Orain iraun eta eutsi besterik ez da.

Gaueko lagunekin zebilela entzun zuen.
Eta zer esan... bere burua irudikatu zuen:
orain gauzak ondo zihoazkion,
baina gaizki joaten hasiko zirenean?
Behin maldan behera hasita
zaila da hondoa jo arte gelditzea.

DEFINIZIO BAT

Esnatzea eta begiak zure bila hastea,
atzoko barreak oroitzea
eta unea galtzeko beldurrez besarkatzea.

Balkoiko landareak ureztatzen ikustea,
dutxan eskuak besteren gorputzean galtzea
eta ispilu lurrunduan mezuak uztea.

Ilea lehortzean kantari entzutea,
joateko geratzen zaizkizun orduak zenbatzea
eta berriz biluzik irudikatzea.

Isiluneak telefono elkarrizketetan,
promesak eta zalantzak:
«Sentitzen dut, zain nazazu».

Afaritarakoa prestatzea,
beldurrak partekatzea
eta gaueko argiak eta kontsolamendua.

KONTU-GARBITZEA

Ez da uste duzun bezain sinplea.

Ezetz esatea bezain erraza da.

Hala uste duzu?

Ziur nago.

Ez nizun minik egin nahi.

Orain berandu da.

Zertarako?

Damutzeko.

Ez, nahi baduzu.

Zergatik egin zenuen baina?

Bizirik sentiarazi ninduen.

Hori besterik ez?

Inoiz ez duzu debekatuaren indarra sentitu?

Dena arriskuan jartzekoa?

Belarretan etzanda edo ezkutuka autoaren atzealdean.

Ez jarraitu.

Plazer azkarraren ondorengo sosegua.

Ezer gehiago ez?

Eta barrua jaten dizun erruaren harra.

Eta iruzurra eta itxurakeria...

Nire buruari eta besteei esan nizkien gezurrak.

Nire lotsa.

Erabaki bat hartu behar nuela pentsatu nuen.

Eta?

..., ...! ..., ...?

Esazu zerbait!

BARRURANZKO BIDAIA

LONDON CITYKO BALADA

Utzi zuen etxea, utzi zuen dena,
ikusteko munduan bere baitan zena.
Beldurra, mina, erra, poza eta pena,
aukerari zor zion ez zuen kemena.

Miarritzetik landa zerua urratu,
jabetu zen garai bat zuela bukatu.
Etorkizuna heldu, joana ukatu:
ihesa ez da beti izaten bekatu.

Behin sentitutakoan herstura larria
dena begitantzen da ikaragarria.
Atzoko malkorik ez, biharko irria,
horixe zen nahi zuen nortasun berria.

Neguaren gorria, ilun eta hotza,
farolaren argitan eguna da motza.
Kurloien garrasia, zakurren gorotza,
zeruaren azpian nor ez da arrotza?

Lur azpitik ikusi kanpoko bizitza:
mundu berezi bat da pertsona bakoitza.
Alone dago hirian, galdu baitu hitza,
hizkuntza da munduan jendearen giltza.

Hostal txiki batean handi amestea
etxekoa bihurtu arte erbestea.
Love dela maitasuna, *free* dela askea,
komeni zaio gauzak ikasten hastea.

Japonia, Pakistan, Ekuador, Angola,
pentsatu lur erdia Londonen dagola.
Egiptoko aztarnak, Greziakoak nola,
mundua izan baitzen *british*en oin zola.

Kalean inork ez du ezagutzen inor,
dena du ezezagun, atzerritik dator.
Excuse me, *sorry* eta *I need a little more*,
bizitza zertan datzan jabetuko da hor.

Armairua, ohea, leiho bat kalera:
horren truke ordaintzen baitu alogera,
Merton aldean, urrun, garesti gainera...
Zerua jausi zaio sabaitik behera.

Urrun dagoenaren askatasun garra,
begien harridura, ezpainen dardara,
maitasun apurrik ez, sexua zabarra:
«horrela al da hemen bizi standarra?».

MALETARI GORAZARRE

Bere aberria hemen
metro koadro bat.

Arropak, liburuak, botikak,
nezeserra, agiriak eta dirua.

Ondasunak gordetzeko egokia,
miseriak ezkutatzeko ezgauza.

EGONALDI BATEN INBENTARIOA

Tottenham Court Road, Bookers Hostels (bost egun):
filmak ikusi, liburuak irakurri eta hitz egiten
ezagutu zuen gazte katoliko alemaniar bat (Alfred),
eta bi neska mexikar ere bai (Tania eta Cynthia)
Londonen egun batzuk pasatzera joanak.
Gauza txiki baina inportanteak erosi zituen:
entxufeen egokigailua (Siemens) eta zapatak (Pointer).
Barre besterik egiten ez zuen judu batekin (Sarah)
joan zen William Turnerren koadroak ikustera,
tamilen manifa batekin gurutzatu ziren (Oxford Streeten),
Elvis Perkins ikusi zuen disko berriko (Ash Wednesday)
kantu batzuk jotzen megadenda batean.
O! Baina lan ere egin behar zuen; artikuluak idazten
zituen Euskal Herriko egunkari baterako,
bestelako diru sarrera txiki batzuk ere bazituen arren.

Handik landa etxe bat aurkitu zuen, hiriaren hegoaldean,
tubeko linea beltzaren amaieran (Colliers Wooden).
Lorategira ematen zuen logelak (asteko 75 pound).
Gerrako beteranoa zelako armak lortu ahal izango zizkiola
esan zion auzoan adineko gizon batek (Kevin).
Linton Kwesi Johnson elkarrizketatzeko zita lortu zuen
nahiz eta gero burutu ez (kontzertu benefikoa baitzuen).
Demonstration batera joan zen behin (ez daki zeren alde).
Peruko mutil baten (Bernie) lagun egin zen:
SoHoko buffet thailandiar bateko sukaldean
lan egin arren, aktorea zela esaten zuen.
Neska japoniar batek (Izumi) *skinny* deitu zion,
larunbatez (Hyde) parkera joateko geratu ziren,
eta etxera bueltatu aurretik dirua eskatu zion
aurrezkiak amaitu omen zitzaizkiolako.
Astean 130 librarekin bizi zitekeela frogatu zuen:
erdia pasa alokairurako, gainerakoa luxurik gabe;
baina jendeak jan egin behar du, edan, jantzi...
zulo asko estaltzeko, izan bereak izan besterenak.

Garai hartan ketaminaz hitz egiten zen bazter guztietan.
Ko-ko (Mornington Crescent) aretorako ohitura zuten:
eguna hastearekin amaitzen ez ziren festak
eta lorik egiten ez zuen jendea (Mark, Polly eta Adam).
Bakarrik ibili zen Thames ertzetik, Vauxhall Bridge,
John Islip Street, Millbank, Lambeth Road...
eta joan ziren egunak (larunbatetan Spitalfieldsera)
eta igaro ziren hilabeteak (igandetan Camdemera)...
Tony Blairren gobernuak hondoa jo behar zuela
iragartzen zuen prentsak, edonoiz garraiobideak
bonbekin erasotzen saiatuko zela Al-Qaeda.
Kristin Hershen (Your ghost) kontzertu batean izan zen,
ikusi zituen cricket partida zati batzuk, eta une batean
nahikoa gauza bazirela iruditu zitzaion.

JOURNAL

2007ko otsailaren 3a. Logura, hotza, negua.
Te beroa galletekin. Lasaitasuna.
(*Calmness* esaten da.)

Autoaren alarma. Berogailua piztu.
Katu bat lorategiko etxolako teilatuan.
Gosaritako ontziena egin. Supermerkatutik
ekarri beharrekoen zerrenda: fruta, arroza, pasta,
sobreko zopak, bizitzeko premiazko gauzak.
Jende berotasun apur bat erosi ahal balitz.
(*Cordialness* esaten da.)

Hotzari aurre egiteko dutxa beroa.
Elurretarako zapatak. Espaloi gatzatua.
Autobus geltokian egonaldia.
Newspapera eta Montoiaren liburua.
Ezagutzen ez duen jendearen aurpegiak.
(*Homesickness* esaten zaie.)

Itzulera metroan. Afaltzekoak egin,
hortzak garbitu, biharko asmoak antolatu:

museoa, alokairua, etxera telefono deia.
Begiak errenditu arte irakurri.
Nekea, asperdura, amorrua, mazedonia batean.
(*Hodge-podge* esaten dute.)

HORRELA MINTZO DA ZARATHUSTRA

Oraindik makurtu gabea zara, aurpegian nabari zaizu.
Bizarra egin berritan zaurien markarik ez duzu bistara,
begiak husteko biltegiak dira eta ez dute gainezka egin.
Dena ondo doakizula dirudi, zorteko zara, ezta?
Dezepzio handirik ez, ilusioak osorik, betiereko haur
gurasoen ondoan, diru falta gabe, mundua ezagutzen.
Baina beste norbait izan nahiko zenuke.
Beti goiz da mila zatiak inori entregatzeko:
oso, bat eta bare baino hobe txikituta, asko, bizi:
edan besteren ezpainetatik, ezezagunen ondoan esnatu.
Urteek aurrera egin ahala jendea damutu egiten da
egin ez dituenez, ez makurtu artean ustez egindakoez:
ezagutzen ez duguna nahi dugu, galdu duguna
berreskuratzea desiratzen dugun adina indarrez.

Gure buru-gorputza nekatu egiten da zaharrez,
zabaldu behar ez zuen ate bat zeharkatzen du,
engainatu egiten da, engainatu egiten dute,
eta lehengoa nahi du baina berria ere bai,
emaztearen kontsolamendua eta maitalearen
hankak.
Begira niri... zu baino hamabost urte eta
hogei mudantza makalago; etorkizuna joan zait,
amodioa ukatu dut, nahi adina ile ukitu,
gosea asetzeko jan, nireaz beste egin dut,
eta besterenaz ere bai. Baina dramarik ez,
entzun egidazu: gauza onak kasualitatea dira
eta ez lege edo gertakarien ondorio logiko.
Atsekabe eta plazer nahastura, erdiz gorroto
erdiz amodio, formula kimiko bat da; ez arau eta
ez fede, dena barne bulkada: zure bihotza
ez dago buruan, zure burua da bihotzean dagoena.
Ez zara lehena. Ez zuten zerbait aurkitu nahian
galdu diren asko ezagutu ditut zure aurretik.

HERRIMIN ARIKETAK

Ez distantziak
ez egunen abiadurak

desagerrarazi ditu.
Hemen dira berarekin.

Regent’s Parken eta Baker Streeten,
Kensingtonen eta Charing Crossen.

Zergatik ez dira edonon galtzen,
noren begikoarengatik jarraitzen dute

atzean utzi nahi zituen
erru eta akatsek?

PANORAMA ITSUA

Geometriaz deus jakin ez eta hiriko
zementuaren leuntasunari uko
egiten diote zintzilik errautsetan
zurekin egon nahi dut gau honetan
giltzatu ate guztiak eta ez dadila
inor atera begietan hortzak ametsak
mastekatzen ezin du ez du nahi
sentitzen duzuna asmatu zer esan
zailago hemen da ez diozu inori
galdetu eskuekin lokartzean
horma harrizkoa da eta mutilak lo
itxura egiten du izan edo egon
pozik sentitzen da dolorez
berean jarraitzeko aldatzen da
bai dioenean bihotzak ez
zaurietatik arnas hezurretaraino
ene maite ene maite arrazoi bat (faborez!)
sartzen zaio gezur gihartsu bat besterik
ez zortzi ordu lan zortzi ordu ohe zortzi ordu
zer? Bizi gogoaren menpeko den jendea ezagutu
ukitu ebatsi baina kanpoan atea atera

han ezerk ez baitio ezer gogora ekartzen ez
bada eta aurpegiak aurpegiaren moltso nahasia
erlojuak telefonoak gaueko xuxurlak barkamena
errukia gorputzak haien gorputzak!
Beti kontu bera. Emazkidazu bi bat niretzat.
Usainik gabe garbitu gabe zimurtu gabe
memoria: zikin samarra dauka pixka bat utzia.
Hitzen gordailua gauzen egoera naturala eta hura
jasanezina zen. Arratsalde hartan?
Shoreditch Bermondsey Kennington Shadwell
anitz dira bakardadearen trenak logelak
desastrearen genealogia etxeko giltza estutzen
mind the gap arrisku gehiegi gordetzen du
hiriak baina haietarik libre egon nahi al du?
Hasi berriro hasi berriro dena ondo doa eta
jostagarria
iruditzen zaio serio antzeztea ez dela besterik ilusio
honetatik kanpo ezer ez ezer ez
Who are you?!

COLLIERS WOODEN GAUEZ

Etxera bueltan lorategian topatu du.
Euririk egiten ez duen gauetan
erretzera ateratzen da
lepo bilduko jertsea jantzita.

Bizilagunarengatik daki
bolada txarra ari dela pasatzen,
baina nor ez da
bolada txarra pasatzen ari.

Gau argia da,
ilargia zurbil dago goian.
Eta izarrak.

—Ez dira ederrak?

Ez dio esan,
baina dirdira egiten duten izar usteko asko
espazioan errari dabiltzan satelite zatiak dira.
Milaka daude zerua deitzen duten

itsaso hodeitsu horretan.

Gehienei berdin zaie ñirñirka daudenak
izarrak edo txatarra diren,
eder izaten jarraitzen duten bitartean.

—Ikusten duzu izarrek egiten duten marrazkia?

Cassiopeia konstelazioa dela,
eta bere edertasunaz arrandiatzen zelako
desterratu zutela han gora.

Begiei indar egin arren
zail da ezeren antzik hartzen.
Ez dagoen lekuan ikusi behar da.

—Zergatik daude gauza ederrak hain urrun?

Ia berrehun egun dira hemen dagoela.
Etxeko jendearengandik banatzen duen
distantzia kalkulatu du:
nor ez da gauza ederrak
beti urrunegi izatearen beldur?

Sinetsita dago ordea,
gauzek, eder eta onak izaten jarraitzeko,
eurengandik urrun behar dutela.
Hausteko arrisku orotik salbu.

HIL EZ DENAK

Zure atean jotzen du berriz
babes dezazun,
zure keinu bat bilatzen du
irautea merezi duela jakiteko.

Badaki lehortea zer den,
badaki itxaroten,
badaki harri artean bizitzen.

Inoiz minik behar du,
inoiz zalantzarik,
inoiz bizirik sentitu
hil ez denak.

ATZERA LUR HARTZEN

ATEA

itzuli eta berriz sortu
orain ateak ditu memoriak
ez da hitzez egina

ausartek besterik
ez dute atzera egiten
besteak bidean geratu ziren

GATZEZKO ESTATUA

1

Miarritze Behobia Donostia Zarautz
ezin hitzak ezpainetaratzen zaizkio
barruaren mugetan zubi eginda.

Autobidean lepoa jiratu du
kontrako norantzan jarritako
trafiko seinaleak irakurtzeko.

Abisu asko ematen dituzte
baina ez dute norbere baitara
bidaiatzearen arriskuez ohartarazten?

2

Joan zenetik dena berdin dago:
etxe aurreko sahatsa eta
polizia sirenak gauean.

Joan zenetik dena ezberdin da:
sabeleko harriak
eta itzulerako begiak.

ARKEOLOGOAK

Zeure puskak bildu eta alde egin ondoren
min eta erruak salagarri daudenean ailegatuko dira.
Egunaren lehen eguzki printzek agerian utziko
dituzte
ohe gainean bihurritzen zineneko zimurrak.
Zeren seinale direla esango dute?
Zer aurkituko dute azpiko geruzak aztertzean?
Zenbat amesgaizto, zirri, zauri miazkatze?
Urrezko aroa aspaldi igaro eta, ordutik gainbeheran,
izurri batek ihesera bultzatu zintuela idatziko dute?
Zer besterik froga dezakete arkeologoek
bizikidetza adiskidetsua aspaldi akabatu zela baino?
Desagertutako zibilizazioaren arrastoak orraztuko
dituzte
geratzen denak hutsuneak harramazka ditzan.

SOLARIS

Nekeak babesgabe harrapatzen duenean,
joandakoaren mamua etortzen zaio bisitan
denbora eta distantzia gaindituta.

Memoriaren ateak zabaltzen ditu
eta min-haizeak barruak irakurtzen dizkio
zauri zaharrak gaiztotzeraino.

Biharamunaren zain,
ezagutzen dituen jendeak ikusten ditu
eta inoiz zeharkatu zituen bideak.

Gaua ilun da kanpoan,
hor zehar galdu da loa.
Denbora batean ez da etorriko.

Beste mutil batzuen besoetan irudikatu zaitu.
Sabeletik estutzen zintuen lotarakoan
eta besoaz titiak igurzten.

Zure zilbor etenaz oroitu da
eta zakiletik heltzen zioten
esku-ahur handi haiez.

Gogo txarrez masturbatzen hasi da
zeurearen antzeko larruekin fantaseatuz.
Ohea utzi eta telebista piztu du:

hontzentzako albistegiak,
luze doan tenis partida,
iragarki merke batzuk.

Egongelako leihotik
Donostiako argiak asmatzen dira,
kotxe bakanen bat autobidean.

Atzera ohera itzulita,
besoak buru azpian jarri
eta loa ehizatu nahian

erlojuaren seinalearekin
amorruz itxi ditu begiak:
«Lau ordu eguna argitu arte».

Zuk hartu ohi zenuen aldera jiratu,
han ote zauden haztatu eta
inoiz itzuliko zaren pentsatu du,

barruei arnasa eman,
baraila mindu arte hortzak estutu
eta bere bihotza entzutera gelditu da.

TEST PSIKOTEKNIKOA

Zer irizten diozu energia nuklearraren erabilerari?
Gustatzen al zaizkizu Cy Twomblyren koadroak?
Baliagarria zaigu eskandinabiarren eredu soziala?
Zenbat lagun dituzu facebooken?
Badakizu nor den Henry Bengoa?
Bigarren aukeretan sinesten duzu?
Zein hizkuntzatan esan dezakezu au-revoir?
Angela Merkel ala Nicolas Sarkozy duzu nahiago?
Ezkertiar edo eskuindar, nola definituko zinateke?
Badaukazu Sonic Youthen diskorik?
Zure gurasoak bizi dira?
Gezurrek justifikaziorik badutela pentsatzen duzu?
Egin al zenuen lehen jaunartzea?
Beti alderdi berari bozkatu diozu hauteskundeetan?
Ze euskal liburu duzu ohe ondoko mahaitxoan?
Zer moduz moldatzen zara aurreko maitaleekin?
Arazo guztiek konponbidea dutela uste duzu?
Zenbat ebakuntza egin dizkizute?
Afaltzeko zer nahiago duzu: pasta ala arraina?
Zure etxean ala autoan?
Bihar?... edo agian besteren batean?

ESTALTZEN

Kamiseta erantzi diozunean
bistan geratu zaio
sorbaldatik behera doan larru-lautada.

—Zauriaren arrastorik geratzen zaizu?

Bukatu zela esateko
parkean egon zinetenetik ez duzue elkar ikusi:
zazpi hilabete luze pasa.

Ilargi laurden baten forma du orbanak.
Nondik begiratzen den,
aho bat da irribarrez.

Alderantziz begiratuta,
ezker bularra ireki zion
ezpata arabiar bat da.

—Min egiten dizu oraindik?

Memoriak goldearekin urratzen du.
Zer egin zenuen laguntzeko eskatu zizunean?
Zail da ahazten: ezin du.

Desertu handiak daude munduan
baina luze zabalenak
norbere baitakoak izaten dira.

Bazterketari adiskidetasuna deitu zenioten
eta suntsitzen gaitzak diren
harresiak jaso zituen denborak.

Nola jokatu ezer gertatu ez balitz bezala?

Baina eskuek arrazoien kontrako bideak hartzen
dituzte.
Hatzek ez dute larrua ahaztu.
Bizi nahiak elkar estaltzen dira.

—Damua... etorriko da.

Begiak ixten dituenean
supermerkatuan irudikatzen du berarekin
etorkizuna orgaren erabakimenez gidatzen.

Beso artean estutzen du,
aspaldiko mamuak ito
eta bizidunak gorde eta ez galtzeko.

Errazagoa zatekeen plazer nahiak elkartu
eta gauzak nola joango diren ez dakiten
iraganik gabeko bi ezezagun balira.

Lehengo larru beraren gainean
hatzarekin zauriaren ertzak marraztu dizkiozu,
eta ondo dakizuna berresteko galdetu:

—Hemendik lapurtu nizun bihotza?

ELKAR ULERTZEKO PROTOKOLOA

6. Ze beste aukera duzu?
5. Arrazoia emango dizu (edo ez).
4. Izan zaitez ulerbera.
3. Azal iezazkiozu zergatiak, nolakoak, borondatea.
2. Ez pentsa hau zerbaiten amaiera denik.
1. Bestela ere gauzak nahiko gaizki daude.

BERRIZ ESAN

1

Bular biluzia nahi dut
eta sabelpea laztanduko didan eskua.

Amodiok plazer esan nahi du
nahiz gehienetan den gupida.

Ez dut ikusten,
ezin da edan.

Ahotik baino ahoa nahi dut,
egia baino larrua.

2

Sentitzen duzuna hotza da
eta ebakitzen duena labana.

Nire barruen luzapenak
zure ilea laztantzen du.

Damu hitzak ahoskatzen ditut:
maitasuna esan nahi dute.

3

Zin urratuak zauria
izua ez da zolia
larruan egin larruan bizi
zer besterik da egia.

VOYEUR

Ondo daki zer gertatzen den gero:
zirrika ikusten ditu
elkar besarkatzen
ezpainen bila
eskuek zer harrapatuko.

Ondo gogoan ditu
lotsaren aurre-urratsak.
Bide hartatik ihesi dator
eta begira besterik ez da egoten orain
besteak nola trebatzen diren
estali aurreko jolasetan.

Aztertu egiten du
garai bateko hitz gozoak
nola bihurtzen diren irain eta oihu.
Jakin nahian noiz hasten den eta nola bihurtzen
hasierako sentimendu gozo eta zoroa
mikatz eta astuna bihotzeko zokondoan.

Okerrena da
zer gertatzen den badakien arren
ez duela aurkitu non ezkutatzen dituzten
maitasuna deitzen duten hori amaitzen zaienerako
elkarri min egiteko sastakaiak eta zigorrak.

GU, JENDEA

Kokarekin burua galdu duen jendea,
gauero beheko tabernak ixten dituena,
behin galdu eta loa berreskuratu ezin duena.

Gu ez garen
gure jendea.

Hautsi eta osatu ez dena,
berriz hasi eta berriz porrot egindakoa,
nazkatua, eroria, ezindua.

Gure antzekoegia
beste izateko.

Neskalagunak eta familiak bazter utzi duena,
mundua bere baitan daramana,
akastuna, kulpaduna, zaurgarria:
errenditzen ez dena, baina
hobera aldatzeko itxaropenik ere ez duena.

Gauzak behar bezala joan ez balira
gu geu ginatekeena.

Federik gabea,
minak apurka jandakoa.
Mamuen aurka borrokatzen dena,
ansiolitikoekin ezindua.
Ohetik jaikitzeko indarrak galdu dituena,
beldurrari beldur diona.
Eszeptikoa, mesfidatia, damutua.

Gu eta gure jendea.

KOORDENADA BERRIAK

MATRIUSKA

mutil meharra biluztean
haur izua ikusten da

haur izuaren azpian
animalia lokartua gotortu da

animalia lokartuaren baitan
buru bihoztua dago

buru bihoztuan
inork aurkitu ez duen irla bat

irla hartan
gehiegi biluztu behar ez duen mutila bizi naiz

AUTOERRETRATU GAURKOTUA

A

ilea baso irekia da
kopeta desertua
betzuloak bi putzu ilun

begiak faro dira
belarriak txiki
sudurra gezi kamutsa

bizarra latza da
mihia zikina
hortzak anarkia

hatzak hamar adar
besoak bi hesola mehar
zilborra barrurantz hasitako onddoa

titiak sentiberak dira
sabela labirintoa
zakila misterio bat

gerria enborra
oinak sustraiak
bihotza limoiondo bat da

B
nor 72454204-H
lo orduak 85896
01126742 osasun txartela

hortzak 32 dioptriak 1,5 + 2,5
oinaren neurria 42 prakena 29
giltzak 15 jaitsitako kantuak 798

78 metro koadro
hipoteka 699 euro
30350029390295080 45 kontua

1993-03-15 Laussaneko derrota
lan egun kotizatuak 1679
444 kilo zabor urtero

autoa E-5034-BTC
isbn 9788492468256
%33 basque

ZOOLOGIA TRATATUA

1

Hankak lurrean belaunak minduz
narrasti azal ezkatazko bat ari zait
zurbila ordezkatzen:
bularraldea urratzen dit urrats bakoitzak,
egiten dudana azalean sentitu beharrak.

2

Oskola hazi zait ornoetan.
Nire gauzak dira: etxea eta memoria.
Hara biltzen naiz.

3

Lehorrean edo uretan,
samurrean eta gorrotoan:
anfibioa izan.

4

Besoekin inguratu
eta zurekin korapilatzen naiz,
bularraldera hurbilduz

sabela ferekatu dizut,
eta hankak zabaltzean...
jendearen barruan jendea dago!

5

Komuneko ispiluan
soin urratua, oskola, bizkar hezurra,
hegorik gabeko besoak,
saihetsetara itsatsitako titiburuak.

Nire baitako
zizare, sugandila,
dortoka eta tximuak.
Nire narrasti, anfibio eta ugaztunak.

GAIXOKIDETZA

Ihes egiten dit bihotzerrearen lurrunak.
Hortzak oker ditut, hortzoiak gorrituta:
—Erraz jartzen zaizkizu odoletan?
Gorputza zerbaiten abisu ematen ari da.

Ile asko galdu dut azken hilabeteetan,
lau kilo gihar masa ere bai:
saihetsak markatzen zaizkit orain bularrean.
Amorruaren dardara betikotu zait okotzean.

—Sukarrik? —Buruko minik?
—Beherakorik? —Herpesik?

Urduritasunak digestioa pisutu dit
eta goitika datozkit hitzak.
—Psikosomatikoa izan daiteke.
Bista nekatua, betzulo sakonak...

Erradiografiak galdera itxurako amurik ez
eta soberako izurik ere ez du erretratatzen.
—Ez da ezer berezirik antzematen.
Tasa normaletan daukat desilusioa.

Botikak hartu eta berrikuste txanda eskatu.

—Ez dirudi larria denik.

NIRE ETXEA

Hau da nire etxea.
Naramaten bide guztiek handik nakarte.

Leiho ondoko aulkian egon nintzen zuk deitu zain,
sofa honetan bilakatu ziren zure beldurrak gure,
horma horrek besterik ez nau kanpotik babesten.

Leku ona da amodioarentzat.
Hemen biltzen naiz maite ditudanekin.

Egongelatik komunera pizten zait galdera,
sukaldetik logelara datorkit zure akordua.
Etxean ez da zabaldu ezin dudan aterik.

Hemen bizi naiz,
hemen geratzen dira esandakoak,
hemen gaude
gaudenak eta joanak.

GURE HITZAK

hiztegietan ez diren arren
zure hitzak niretzat
asmatuak zoroak konplizeak
nire hitzak zuretzat

esan berriz esan
ez daitezela ahaztu
ez daitezela gal

kode zifratu intimo bat
zentzurik gabea elkarrentzat ez bada
lotsagarria gu ez beste inorekin baliatzeko

zineman lo geratu nintzenean
pantailako pertsonaiak oihukatzen zuen izenaz
deitzen nauzu biok autoan biok etxean gaudenean
nik diminutiboak eta bustidurak ditut zuretzat

esan berriz esan
ez daitezela ahaztu
ez daitezela gal

hitz horiek hondartzako gauez ari dira
hitz horiek gu esan nahi dute samur
hitz horiek elkarrekin gauden artean iraungo dute

ARGI ZULOA

Dexter Gordonen baladak jartzen dituen
zure irrati saio gustukoena bilatzen dut.
Zugana eramaten ninduen urrun zinenean.
Orain eskuekin heltzen zaitut haragizko ohola
eta saxoa jotzeko itxurak eginez
musu ematen dizut lepoan ezpainetan
galderarik eta iraganik gabe (nahi zaitut)
neu ere goza nadin eta goza zaitzadan.

Garai zaharrak joan dira:
burua udako azken eguzkitara jarri
eta betazalak goritzen uzten ditugu
guretzako asmoak barruen berotan egosten.
Belarretan etzan nahi dut eta zure ametsetan agertu
etorriko dena halako une naroen segida dela
pentsatuz
nire bihotz burutua eltzeitsu bat dela sinetsi
barrenean gordetakoa asmatzeko hautsi beharrik
gabe.

UNE HISTORIKOETAN (1981-2009)

HIESaren mehatxua Malvinetako gerra Lech Walesari Bakearen Nobel saria ETA pm-ren armen uztea Bernard Hinault Frantziako Tourrean bosgarrenez garaile Txernobilgo zentral nuklearra Andy Warholen heriotza Mikhail Gorbatxov Sobiet Batasuneko presidente Panamaren bonbardaketa eta okupazioa *Euskaldunon Egunkaria*ren aurreneko zenbakia kioskoan Letoniak independentzia Europako Kopa Barçarentzat Koemanen golaz Negu Gorriaken *Borreroak baditu milaka aurpegi* Rwandan historiako genozidiorik handiena Bilboko metroa Apartheidaren amaiera Dolly ardiaren jaiotza Guggenheim Google Kosovoko gerraren azkena Ulsterko autonomia bertan behera Richter eskalan 8.8ko lurrikara El Salvadorren euroa *Hodei berdeak* Europako Konstituzioa Mahmoud Abbas Yasser Arafaten ordez ETAren suetena ilargi eklipsea

Mikel Laboaren heriotza lehen presidente beltza AEBetan eta bien bitartean lana aisialdia zerbezak eritasunak atsedena haserreak bozkarioa. Hori ere bai. Biba pellot, biba festa!

AZKENA

Nire historia besterik ez da
eta hori ere ez da nirea bakarrik:
beste jende batekin eta
haien hitzekin osatzen da.

Nire memoria ahazkorra da
aspaldi garrantzitsua zena
erridikulua iruditzen zait eta
barre egiten dut atzean utzitakoan.

Egunen batean garai hauek ere
irrigarri eta friboloak irudituko zaizkigu
nahiz egun indar guztiz saiatzen garen
bizi beharrak geure neurrietara ekartzen.

Historia hau nirekin amaituko da
eta orduan jada ez da nirea izango
ez bada zurea eta gurea
garai bateko jendarte batena.